

TXANELA PROIEKTUA derrigorrezko lehen hezkuntzako ikas materiala da.

HAUR HEZKUNTZAN Urtxintxa proiektuarekin hasitako ibilbidearen jarraipen modura aurkezten den proiektu honek, bi etapan arteko zubi lana batetik eta Lehen Hezkuntzaren oinarriak finkatzen laguntzearena bestetik ditu helburu. Lehen Hezkuntza etapa zabala den heinean (6-12urte), eta ziklo bakoitzak bere zeregina duenez hezkuntza prozesuan, hauen arteko eta beste etapekiko loturak zainduaz curriculum eskaintza koherente, bateratu eta egokia eskaintzeko asmotan sortua.

Lehen Hezkuntzako proiektuak, TXANELA proiektuak alegia, Haur Hezkuntzako URTXINTXA proiektuak biltzen dituen hainbat ezaugarri gordez, haurren garapena sustatzeko elementu berriak ere eskaintzen ditu.

TXANELA PROIEKTUAK, besteak beste, honoko ezaugarriak lituzke:

Haurra bere osotasunean hartzen duen proiektua

- ✚ Gaitasunen garapenean oinarritua
- ✚ Ikaskuntza esanguratsua eskaintzen duena eta ikasle aktiboaren bila dabilena
- ✚ Haurren etengabeko motibazioa bultzatzen duena
- ✚ Aniztasuna errespetatzen duena
- ✚ Balioen eta jarrerren hezkuntzarekin konprometitua

Euskal Herri osorako egina

- ✚ Herrialde guztietako erreferentziak jasotzen dituena
- ✚ Jatorriz euskaldun nahiz erdaldun diren haurrak euskaraz eta curriculum bateratuan hezteko proposamena
- ✚ Curriculumaren euskal dimentsioari garrantzia ematen diana
- ✚ Euskalduntasunetik abiatuz, kultura unibertsalerako bidea egiten duena

Diseinu bateratu eta eraginkorra

- ✚ Derrigorrezko Hezkuntzarako curriculum deskribapen bateratua
- ✚ Hezkuntza asmoak argi eta zuzen azaltzen dituena
- ✚ Irakasleen berrikuntzaren eta trebakuntzaren bultzatzailea
- ✚ Edukiak lantzeko era askotako euskarriak integratzen dituen proiektua

Zehar lerroak

- ✚ Sexu-berdintasunerako hezkuntza eta hezkidetza
- ✚ Giza eskubideak, harremanak eta Bake Hezkuntza
- ✚ Osasun Hezkuntza
- ✚ Kontsumorako Hezkuntza
- ✚ Gizarte-komunikabide Hezkuntza
- ✚ Bide-Hezkuntza
- ✚ Globalizazioa
- ✚ Ikuspegi eraikitzailea
- ✚ Ikaslearen kudeaketarako taldekatzeari eta elkarrekintzari buruzko deskribapenekin
- ✚ Denboraren, espazioaren eta baliabideen ustiaketarako orientabideekin
- ✚ Gurasoekiko harremanak bideratzeko proposamenekin

IKT kompetentziak Lehen Hezkuntzan

Txanela Proiektua etengabe berritzen eta egokitzen ari den proiektua izanik, 2008-2009 ikasturtean, abian jarri zen proiektu bat Txanelako jarduerak IKT baliabideak erabiliz burutzeko. Gure ikastolako irakasle baten parte hartze handia izan zuen egitasmo horrek ez du papera eta arkatza ordenagailuaren teklekin ordezkatu nahi, aitzitik, harago doan egitasmo bat izan nahi du. Izan ere, IKT jarduera horiekin lan egiteko metodologia aktiboagoa bilatu nahi izan da IKT baliabideek eskaintzen dizkiguten aukera osagarriei ahalik eta etekin handiena ateratzeko asmoz.

Txanela, KONPETENTZIETARANTZ BIDERATUTAKO PROIEKTUA



SARRERA

- **Zer da konpetentzietan oinarritutako hezkuntza?**

Badago gogoeta bat konpetentzietan oinarritutako curriculuma planteatzea justifikatzen duena eta honako honetaz ohartzearekin zerikusia duena: hezkuntza formala oso akademikoa izan da eta, oraindik ere, horrelakoa da; gainera, ez ditu gazteak behar bezala prestatzen subjektu gisa, herritar gisa, bizitza osoago bat bizi dezaten, ezta lan munduan sartzeko edo bizitza osoan zehar ikasten jarraitzeko ere. Konpetentzietan oinarritutako curriculumak ohiko curriculum akademikoaren ordezkua izan nahi du, “jakite”aren logikatik “egiten eta erabiltzen jakite”aren logikara igarotzen baita. Ikuspegi horretatik, garrantzitsuena ez da, esaterako, batuketak, kenketak eta biderketak egitea, ezagutza horiek bizitza errealeko arazo batean aplikatzen jakitea baizik. Argi dago “egiten jakite”ko beharrezkoa dela “jakitea”, baina “jakitea”k berezko balioa galtzen du, eta erabileraren mende jartzen da. Hala, teoriaren eta praktikaren arteko banaketa edo jakintzaren eta ekintzaren artekoa murriztu daiteke.

“Oinarrizko konpetentzia” kontzeptuak garrantzizkoa den ñabardura bat eranstean dio “konpetentzia” kontzeptuari. Ez da aski ikaslea konpetentea izatea; aitzitik, ezinbestekoa da bizitza osorako oinarrizkoak, garrantzizkoak eta ezinbestekoak izango diren konpetentziak bereganatzea. Funtsean, hezkuntza, oro har, eta, bereziki, oinarrizko hezkuntza ikusteko eraren aldaketaren ondorioz, praktikan eragina izango duen aldaketa da. Batetik, Oinarrizko Hezkuntzaren *funtzioak zabaldu* egin dira. Eskolaren funtzio tradizionala alfabetatzea eta ikas-arloen bidez oinarrizko ezagutzak irakastea izan da, eta egun, funtzio akademiko hori baino zabalagoak diren funtzioak betetzea eskatzen zaio: pertsona osoaren garapenaz arduratzea (alde fisikoa, kognitiboa, komunikatiboa, soziala eta afektiboa besarkatuz), lana egiteko eta herritar arduratsua izateko konpetentziak garatzea eskatzen zaio. Bestetik, azkenaldian gero eta argiago ikusten da *ezagutzak etengabe aldatzen eta biderkatzen doazela*. Buruz ikasten diren ezagutzak sarritan epe motzean zaharkituta geratzen dira, eta bestetik, ezin dira guztiak ikasi. Eskolak ezin ditu esparru zientifikoa, teknologikoa, sozialean eta kulturean sortzen diren ezagutza guztiak irakatsi, eta are gutxiago, ikasleek horiek ikasi. Baldintza horietan, eskola derrigorturik dago ezagutzen artean funtsezkoak iruditzen zaizkionak hautatzera eta, bereziki, bizitza osorako etengabe ikasten ikasteko oinarrizkoak izango diren konpetentzia instrumentalak lantzerako. Gainera, *bizitza osorako hezkuntza iraunkorraren* ikusmoldeak ezagutza akademikoak barneratzekeo larritasun hori erlatibizatu egiten du, eta denbora esparru zabalago batean kokatzen du. Bada beste arrazoi bat, izaera etikoa duena, oinarrizko konpetentzien planteamendua **zuzentasun eta berdintasun-irizpideekin funtzionatuko duen eskola inklusiboa** lortzeko bitarteko gisa justifikatzen duena; horrela, bizitzarako beharrezkoak dituzten oinarrizko konpetentziak ikasle guztiak lortzeko dituztela bermatzeko, eta bizikidetzaren erraztuko duten oinarrizko erreferentzia komun batzuk izateko.

Aldaketa horiek pertsonak oinarrizko konpetentzietan prestatzea eskatzen du, konpetentzia horietan pertsonaren garapeneko dimentsio guztiak bilduta (hezkuntza-

ikuspegi integrala), eta ezagutzak etengabe transferitzen, eguneratzen, hedatzen eta berritzen jakiteko konpetentziei lehentasuna emanez; eta halaber, informazioaren eta komunikazioaren teknologia aldakorrei eta beste lanbide-esparru batzuetakoei aurre egiteko gaitasunetan prestatzea ere eskatzen du. Azken batean, baliabideak mobilizatzeko eta erabakiak hartzeko, besteen iritziak entzuteko, aukera desberdinak balioesteko, beren burua eta bizi diren mundua ezagutzeko, herritar parte-hartzaile eta solidarioak eta etorkizunean profesional trebeak izateko gai izan daitezela, askotariko testuinguruetan askotariko zereginak arrakastaz gauzatzeko; eta beren emozioak adierazi eta erregulatzeko pertsonak izan daitezela.

Ezagutzen erabileraren garrantzia azpimarratzeak ez du esan nahi Oinarrizko Hezkuntzak lortu beharreko konpetentziak planteamendu utilitarista batera murriztu behar direnik, edota ikaskuntzak, kultur ondare partikularraren eta unibertsalaren birlantze eta transmisioak, duen garrantzia gutxitu behar denik. Badira zenbait ezagutza, esperientzia, sentimendu eta jarrera garen bezalakoak egiten gaituztenak, gure bizitzarako garrantzi handikoak direnak, gure burua, gizartea eta natura ulertzeko baliagarri zaizkigunak. Pentsamendua eta izaera osatzen duten ezagutzak dira, eta aldi berean, egiteko moduan adierazten dira. Oinarrizko konpetentzien eremuak berberak dira edonon, baina konpetentzia horien barneratzea eta erabilera desberdinak dira testuinguru partikular bakoitzean.

- **Zein dira garatu beharreko hezkuntza konpetentzia orokorrak?**

Ikasleak bizitza osorako baliagarriak izango zaizkion oinarriak jaso eta garatu behar ditu bere eskolaldian zehar. Hau da, oinarrizkoak izango zaizkion hainbat ezagutza eta gaitasun bereganatu eta garatu beharko ditu. Eta ez hori bakarrik: ezagutza eta gaitasun horiek egoera jakinetan erabiltzen ere ikasi eta trebatu beharko du.

Hainbat ezagutza eta gaitasun egoera jakinetan erabiltzeko gai izateari deituko diogu konpetentzia.

Eskolaldian landu beharreko konpetentziak zehaztu, deskribatu eta sailkatzeko orduan, hainbat dira jarraitu izan diren irizpideak. Esate baterako, EAEko Curriculum Dekretuak (2007) hitzezko eta ez-hitzezko komunikazioarekin zerikusia duten konpetentziak hainbat eremutan banatuta sailkatzen ditu ("Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna", "Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna", "Matematikako gaitasuna", besteak beste). Aldiz, Euskal Curriculumaren proposamenean gaitasun horiek eremu bakar batean aurkezten dira nagusiki ("Komunikatzen ikasi").

Ondoko koadroan jasotzen dira gure inguruko proposamen eta legezko markoetan egiten diren hezkuntza konpetentzia orokorren sailkapen eta izendatzeak:

EUSKAL CURRICULUMA	EUOPAR BATASUNA	ESPAINIA LOE(2005)	FRANTZIA Loi d'Orientation (2005)
1. Pentsatzen eta ikasten ikasi	5. Ikasten ikastea	7. Ikasten ikasteko konpetentzia	

Komunikatzen ikasi Txanelan

2. Komunikatzen ikasi	1. Ama –hizkuntzan komunikatzea 2. Atzerriko hizkuntzetan komunikatzea	1. Hizkuntza komunikaziorako kompetentzia	1. Frantsesa menderatzea 2. Atzerriko hizkuntza bat praktikatzea
	3. Matematikarako kompetentzia eta zientzietarako eta teknologiarako oinarrizko kompetentzia	2. Matematikarako kompetentzia 3. Mundu fisikoa eza-gutzeko eta harekin interakzioan aritzeko kompetentzia	3. Oinarrizko kompetentziak matematikan eta kultura zientifikoan eta teknologikoan
	4. Kompetentzia digitala	4. Informazioa lantzea eta kompetentzia digitala	4. Informazioaren eta komunikazioaren ohiko teknikak menderatzea
3. Elkarrekin bizitzen ikasi	6. Pertsonarteko kompetentziak eta herritar kompetentzia	5. Gizarte kompetentzia eta herritar kompetentzia	6. Gizarte kompetentzia eta herritar kompetentzia
4. Norbera izaten ikasi			
5. Egiten eta ekiten ikasi	7. Iniziatiba eta izaera ekintzailea	8. Autonomia eta iniziatiba soziala	7. Autonomia eta iniziatiba
	8. Kontzientzia eta adierazpen kulturala	6. Kulturarako eta arterako kompetentzia	5. Kultura humanistikoa

- **Txanela Proiektuaren hautua: Euskal Curriculum.**

Txanela Proiektuko proposamen didaktikoetan egiten den kompetentzien lanketa deskribatzeko, Euskal Curriculumeko bost eremuetan oinarrituko gara.

HEZKUNTZA KOMPETENTZIA OROKORRAK



1. PENTSATZEN ETA IKASTEN IKASI

(klikatu)



2. KOMUNIKATZEN IKASI

(klikatu)



3. ELKARREKIN BIZITZEN IKASI

(klikatu)



4. NORBERA IZATEN IKASI

(klikatu)



5. EGITEN ETA EKITEN IKASI

(klikatu)

MARKO PEDAGOGIKO OROKORRA.

Etaparen xedeak.

Lehen hezkuntzaren oinarrizko xedea haurren garapen pertsonala bultzatzea da dagokion gizarte-taldean integra dadin, bertan era autonomo eta sortzailean ihardunez.

Aurrekoaren arabera, bata besteari estuki loturiko Lehen Hezkuntzaren hiru xede bereiz daitezke:

Ingurunean ikaslea garatu eta autonomoki ihardun dezan lortzea. Horretarako eskolak behaketa, interpretazio, gogoeta kritikozko gaitasunak garatu beharko ditu, epai pertsonalak lantzen lagunduz.

Norbanakoaren sozializazio egoki bat lortu elkarbizitza demokratiko baterako jarrera egokiz. Horretarako beharrezkoak izango dira adierazpen eta komunikazio gaitasunak, gizartearen elkarbizitza arautzen duten oinarrizko balioen estima eta garapen gaitasunak eta bere inguruaren eza-gutza eta berarekiko jarduera-erantzule gaitasunak.

Azkenik eta aurreko bi xedeak lortzeko, hirugarren bat aipatu behar da oinarrizko tresnak eskuratzeari buruzkoa.

- a) Mintzaira mota ezberdinen interpretazioa eta adierazpen baliabideen erabilera eskolan sartu aurreko gaitasun komunikatiboa areagotuko dutenak.
- b) Ingurunea interpretatzeko eta bertan era aktibo eta kritikoa eskuhartzeko beharrezko kontzeptu, prozedura eta jarreraz jabetzea.
- c) Kulturarekin identifikatzeko eta ingurunean gizarte bizitzan era indibidual eta kolektiboak eskuhartzeko esperientzia afektibo, motore, sozial eta kognitiboen garapena.

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK.

- a) Norberaren gorputza ezagutzea eta beronetaz arduratzea, osasun eta ongizaterako ohiturak hartuz eta zenbait jokabidek osasunean eta bizi-kalitatean duten eragina baloratzea.
- b) Ohizko jardueretan nahiz talde harremanetan autonomiaz jokatzeko, inizatibak hartzeko eta harreman afektiboak finkatzeko aukerak emanez.
- c) Talde ihardueren plangintza eta ekintzetan kolaboratzea, demokratikoki ezartzen diren arauak onartzea, norberaren interes eta helburuak besteenei egokitzea, ikuspuntu desberdinak errespetatuz, eta dagozkion erantzukizunak bere gain hartzea.
- d) Pertsonekin, egoera sozial ezagunetan, harreman orekatu eta emankorrak finkatzea, elkartasuneko jokabide batez, sexu, gizarte-maila, sinesmen, arraza edo bestelako ezaugarri indibidual edo sozialengatiko bazterkeria oro errefusatuz.
- e) Ingurune natural eta sozialeko gertaera eta fenomenoak ulertzea eta hauen arteko erlazioak ikustea, eta ahal den neurrian ingurugiroaren defentsa, zainketa eta hobekuntzan parte hartzea.
- f) Kultur ondarea eta gozatzea, bere zainketa eta hobekuntzan parte hartzea eta hizkuntza eta kultur aniztasuna errespetatzea, herri eta gizabanakoen eskubide gisa, eskubide honekiko interes eta errespetuzko jarrera landuz.
- g) Euskarazko eta gaztelaniazko ahozko nahiz idatzizko mezuak ulertu eta ematea, asmo eta komunikazio testuinguru desberdinetan; halaber, hizkuntza atzerritar batean, testuinguru jakin bateko ahozko eta idatzizko mezu errazak ulertu eta ematea.
- h) Ahozko, gorputz, ikusmen, plastika, musika eta matematika espresio-bideen bitartez komunikatzea, sentsibilitate estetikoa, sormena eta arte lan eta adierazpenez gozatzeko gaitasuna landuz.
- i) Galderak eta problemak eguneroko esperientzian oinarrituz antzeman eta planteatzea, norberak duen ezagupena eta baliabide materialak nahiz besteen laguntza erabiliz, arazoak modu sortzaile eta autonomoan konponduz.
- j) Problema errazen konponbiderako informazioa jasotzeko prozedura egokiak erabili eta kodigoen bidez adieraztea, soluziobiderako beharrezkoa diren baldintza material eta denborazkoak kontutan hartuz.
- k) Giza bizitza eta elkarbizitza gidatzen duten oinarrizko balioez konturatzea eta be-rauek oinarritzat hartuz jokatzeko.

Arloak

Lehen Hezkuntzako curriculum arloak, **globalizazio-irizpideen** arabera era integratuan aurkezten direnak, honako hauek dira:

- Ingurune Natural, Sozial eta Kulturalaren ezagupena.
- Arte Hezkuntza (plastika, musika eta dramatizazioa).
- Euskara, Gaztelania eta Literatura.
- Atzerriko hizkuntza
- Matematika.
- Gorputz Hezkuntza.

Zehar lerroak

- Sexu-berdintasunerako hezkuntza edo hezkidetza.
- Giza eskubidea, harremanak eta Bake Hezkuntza
- Osasun Hezkuntza
- Kontsumorako hezkuntza
- Gizarte-komunikabide Hezkuntza
- Bide-Hezkuntza.
- Ingurumenaren kontserbaziorako hezkuntza.

IRIZPIDE METODOLOGIKOAK


Globalizazioa

TXANELA proiektuan, GLOBALIZAZIOAREN irizpidea aplikatzearen aldeko apustu metodologikoa egin da Lehen Hezkuntzako Lehen Ziklorako.


Esan bezala, Haur Hezkuntzako eremuei emandako trataerari jarraipena emanez, eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko haurren ezaugarriak kontutan hartuta, TXANELA proiektuan curriculumaren hainbat arlo era globalizatuan lantzeko proposamena luzatzen da. Arlo hauek, Hizkuntzak (euskara, gaztelania, zein ingelesa), Ingurunea eta Arte Hezkuntza (dramatizazioa, musika, plastika...) eta matematika lirateke.

Matematika arloan ere testuinguru jakin batean naturaltasunez txerta daitezkeen edukien lanketa- proiektuko unitate didaktiko globalizatuekin erabat loturik aurkezten da. Egiten den proposamen osoaren haria eta baita hainbat kontzeptu eta prozeduren lanketa – proiektua osatzen duten beste euskarrietan lantzen diren gaiekin erlazionaturik dago.

HASIERA ZIKLOA



BIGARREN ETA HIRUGARREN ZIKLOAK



Ikuspegi eraikitzailea.

Haurren globaltasuna, alderdi afektiboaren, kognitiboaren eta somatikoaren el-karketa bezala kontsideratzen baita.

Lehen bi zikloetan haurren afektibitatea eta emozionaltasuna oso garrantzi-tsuak dira eta Txanela proiektuan, alderdi hauek zaintzeko ELKARREKINTZA estiloa eta INTERAKZIO estiloa proposatzen dira.

Aipatu elkarrekintzaren muina, “haurra entzutean” datza. Etengabe aktibatzen dira haurra espresatzeko aukerak eta honen adierazpenak lanaren ildoan oinarritzeko kon-tutan hartzerantz bultzatzen du proiektuak. Haurren hipotesiak, sentipenak, iritziak e.a el-kar jartzeari eta dagokion balioa emanaz garatzen dira TXANELA proiektuko proposa-menak.

Bestez, emaitza berari baino, prozesuei garrantzia ematearen ideia etengabe az-pimarratzen da TXANELA proiektuan. Prozesua ematen ari den unean sortzen den aprendizaiari egiten zaio so. Zenbaitetan prozesua bera da helburua. Adin hauetan, hau-rrak bere autonomia, bere kuriositatea, iritzi trukaketa, ekimena e.a garatzea beste hain-bat eduki bezain edo garrantzizkoagotzat jotzen da TXANELA proiektuan.

Ikasgelaren kudeaketa oinarrizko aldagai metodologikoa da. Kudeatzeko erak haurren gaitasunen garapena bultzatu nahiz eragotzi edo atzeratu baitezake.

TXANELA proiektuan, URTXINTXA proiektuan bezala, garrantzi handia ema-ten zaio ikaslea eta irakaslearen, nahiz ikasleen arteko elkarrekintzari/interakzioari. Adin hauetan, eta baita aurrerago ere, interakzio hauen kalitatea bilakatzen baita aldagai nagusienetakoa. Hezkuntza helburuek, ikasketa edukiek, ebaluazio sistemek porrot egin dezakete aldagai hau behar bezala bideratzen ez bada.

Elkarrekintza eta interakzioa TXANELA proiektuan, jarduera bakoitzaren des-kribapenean proposatuko da eta taldekatzearen nondik norakoak ere txertatuko dira. Aldagai honi dagokionez, berdinen arteko kooperazioari merezi duen erreta eskaini nahi zaio TXANELA proiektuan.

Bestez, arrazonamendu aktiboa bultzatzeko asmoz, era sistematikoan problemen ebazpenerako IDEAL prozedura eta hizkuntzaren funtzioen aktibazioa landuko dira TOUGH-en hizkuntza funtzioen sailkapenaren bidez.

Beste batzuen artean, aurrera egiteko konpartitzearen eredu bat, TXANELA proiektuan txertaturiko ELKARTASUNEZKO JOLASEN proposamena litzateke.